

# KORONA MENDIRA

## BI IBILALDI MENDI BIZIKLETAZ

Ion Gurutziaga eta Iñaki Tejerina



**E**N bici de montaña y a través de un magnífico bosque de hayas, dos paseos que tienen como objetivo alcanzar la torreta que marca la cima del monte Corona o Bidansi (1.387 m.), en la sierra de Osa. Uno de los recorridos va por el N, desde Garralda, con una distancia de ida de 14 Km. y un desnivel de 550 m. El otro va por el W, desde Arrieta, con una distancia de 17 Km. y un desnivel de

720 m. incluyendo a la vuelta el ascenso al Lerdingibel.

La combinación de ambos recorridos es posible, e incluso otros, porque el Corona es accesible también, por ejemplo, desde Oroz Betelu, por el col de Zanaz. Y eso sí, si os encontrais con ellos, por ejemplo bebiendo en las balsas que hay al N del Corona, procurad no asustar a la familia de jabalíes.

La cima de Ponsoroa se eleva sobre Villanueva / Iriberry.



# Aezkoaren eta Artzibarren arteko topagunea: Korona mendia

**A**EZKOaren eta Artzibarren artean Korona mendia dugu, borobila altuera nabarmena, eta bista erakargarria eskeintzen duena. Mendi

honek mendigoizaleen errespetua eta atsegina bereganatu ditu. Bai oinez bai mendi bizikletaz ere ibilaldia egiteko aukera paregabe eskeintzen du.

## 1 GARRALDA (843 m.) - KORONA (1.387 m.)

**E**RREPIDE nagusiak herria bi zatitan banatzen du. Iparraldekoan eliza dago eta Hegoaldekoan dugu gure ateraldiaren abiapuntua.

"Xankoi" izeneko harategiaren ondoan kotxea uzteko aparkaleku aproposa dugu.

**Km. 3,69 - (1.140 m.)**

Oxartara doan pista ez hartu.

**Km. 4,10 - (1.200 m.)**

Zeharkako pista batek guk daramagun pista moztu du. Ez egin kasorik eta aurrera jarraitu.

**Km. 4,65 - (1.225 m.)**

Une honetan ezker aldera ateratzen den pistari kasorik ez egin.

**Km. 4,95 - (1.235 m.)**

Puntu honek aipamen berezi bat merezi du. Nahiz eta jarraitu behar dugun pistaren norabidea zuzen-zuzena den, hemendik metro guttitara leku aipagarri bat dago: Apezinberro. Hain zuzen ere, gure eskuinaldeko pagoen atzean dagoen belardi zabaletik ahaztu ezinezko bista dasta dezakezu...

**Km. 5,80 - (1.280 m.)**

Gure aurrean burdin-sare zabalak duen langa ez gurutzatu; utz dezagun gure pista

**Km. 0 (843m.)**

Harategitik mendirantz pista bat abiatzen da; bere lehenengo zatian agerian dagoen harria da bere ezaugarriarik adierazgarriena, bigarren zatian, aldiz, pistaren barnean euri urek egindako higadura ildoak azaltzen zaizkigu. Hirugarren zatian pistaren tinkotasunaren hobekuntza nabaria da. Kontutan har dezagun lehenengo 2,2 kilometroetan 200 metrotako desnibel bat egin dugula; horrek ematen digu igoeraren gogortasunaren ideia. Hemendik aurrera aldapa biguntzen zaigu. Abiapuntutik kilometro batetara, gure pistatik eskuinera pista txiki bat atera da, kasorik ez diogu egingo.

**Km. 2,44 - (1.070 m.)**

"Y" moduko gurutzune baten aurrean agertuko gara, bere eskuinera zuzendu eta igoera bigunean doan pistari jarraituko diogu. Hemendik aurrera gure pista (askoz hobeto esana, kotxearen gurpilen seinaleak) beste bi pistetan zatitzen da, bata bestearen parean doa. Guk nahi duguna har dezakegu, goian biek bat egiten dutelako.

**Km. 3,63 - (1.140m.)**

Ezker aldera Olaldeko pista (ez hartu) ikusgaitasun (bista) gutxiakoa da, jeisterakotan sestra-aldaketa batekin topo egiten duelako.

**Km. 3,651 - (140 m.)**

Gurpilen seinaleak bi zatitan banatzen dira. Ezkerrekoak hartu.





eta burdin-sarearen ondo-ondoan ostoz beteriko aldapak gogortzen du gure bidea.

**Km. 6,53 - (1.350 m.)**


Garrantziko puntu hau azpimarratu behar dugu, zure eskuetan mapa on bat baldin baduzu. Hiru herriren topagune honek (hiru burdin-sareek elkartzen diren tokia mugarri bat lekuko... Burdin-sareak duen langa gurutzatu eta gurpilen seinalei jarraituz pagadiaren barrenetik aurrera segi, txilarrezko soro batetara.

**Km. 684.**


Berriz pagadira sartu baino lehenago, une zehatz honetan gurpilen seinaleak utzi eta eskuin aldeko 45 graduko bira bat egin eta mendiaren maldaren erditik igo.

**Km. 7,16 - (1.387 m.)**

Korona mendiaren tontorra. Hortxe bertan dagoen zutabera igo, alde batetik bista horretaz gozatzeko eta beste aldetik (zure gustokoa baldin bada) handik aurrera segitzeko gurpilen seinaleak kontutan hartzeko. Hemendik Garraldara berriz itzultzea erabakitzen baduzu, kontuz, askotan gurpilen seinaleak hostoz gainezka egoten baitira.



**Cruzando los helechales en el primer tramo del recorrido.**





## 2 ARRIETA (790 m.) - KORONA (1.387 m.) - LERDINGIBEL (1230) - HIRIBERRI (ARTZIBAR) - ARRIETA (790 m.)

**TOIZtik Auritzera doan errepidean, eta Aurizberriko kanpinera ailegatu baino lehen Artzibar daukagu. Artzibarko herri bat, Arrieta, izanen da gure ibilaldiaren abiapuntua. Bai oinez, bai mendi-bizikletaz ere aukera paregabea ematen du nafar udazkenaren usainaz gozatzeko.**

### 0. Km. (790 m.).

Herriko iturriaren parean gelditu eta gero, eskuineko aldean harrizko kale batetik abiatzen da gure bide zuzena. Norabide horretan pistan sartu, kasurik egin gabe eskuin aldean azaltzen zaigun beste pista bati. Bifurkazioa edo bidegurutzea handik 330 metrotara dago. Aurrera segi horretatik.

### 4. Km. (1.160 m.).

Belardi zabal batzuetara ateratzen da gure pista; gure ezkerretara, belardiek eta ezpelek muga egiten duten lekuan harrizko borda txiki bat dago. Gogoan hartu mendira igo eta gero berriz hara itzuli behar dugulako. Aldapan gora joanen gara eskuin aldera.

### 5,39 Km. (1.310 m.).

Gure aurreko pagadia burdinsarez inguratua badago ere, langa zeharkatu behar dugu. Pagadian sartu eta arazorik gabe tontorrera ailegatuko gara.

### 6,26 Km. (1.387 m.).

Korona Mendia. Eguraldiak uzten badigu, hemendik Nafarroako kasko asko ikus daitezke, Pirinioko mendi batzuk ere bai. Mereziz dugun atsedena egin eta gero etorri garen bidetik itzuli lehenagoko harrizko bordaraino (5,39 k)

### 8,41 Km. (1.160 m.).

Harrizko bordaren parean gaudenean eskuinetara jo eta jiratu eta handik aldapa txiki bat jeitsi.

### 9,58 Km. (1.450 m.).

Langa gurutzatu eta aurrera.

### 9,58 Km. (1.135 m.).

Bidegurutzea. Artzibarko Hiriberrira jeitsiko pista (ezker aldean), eta Lerdingibel mendira igotzeko bide zuzena (eskuina aldean).

### 10,52 Km. (1.230 m.).

Lerdingibel mendia. Harri eta ezpelen artean tontorra dago. Lekuko gisa mendi-buzoia. Hasiera batean ikusten den belardi txiki hori ez da benetako tontorra, baina ikuspegi ederragoa eskeintzen digu.

### 11,30 Km. (1.135 m.).

9,58 Km-ra itzuli eta gero eskuin aldeko bidea hartu eta handik jeitsi. Jeitsiera horretan ez hartu aldeetako pistak. Kontuz! 13,47 eta 14,57 kilometroetan dauden langak kontutan hartu, eta gero itxi mesedez.

### 14,85 Km. (790 m.).

Artzibarko Hiriberri. Hemendik Arrietara itzuli, hori baldin bada zure asmoa. Errepidea hartu beharko...

### 17,33 Km. (790 m.).

Arrieta

**Ascensión al Corona, con Larrogain al fondo.**







Fotos de los autores



En el bosque de hayas anterior a la cumbre.

